

## **Azurmendi: nazio edukiak eta naziogintzaren etorkizuna Euskal Herrian**

*Xabier Barandiaran Irastorza*

Deustuko Unibertsitateko soziologia irakaslea

Euskal naziogintzaren etorkizunaz hitz egitea gustatuko litzaidake. Ideia nagusi bat defendatuko dut: gaur egun euskal aberrigintza (oinarrizko hiru elementuetan: nazio kulturala, nazio politikoa eta autoerakundetze politikoan) erabat baldintzaturik dago globalizazio eredu honek herrigintzan ezarri dituen baldintza berrietara, eta krisi sakonean dago. Gehiegikeria handia litzateke euskal naziogintzaren garapen baldintza guztien iturria globalizazio eredu honek sortu dituen errealitate ekonomiko, sozial eta politikoetara mugatuko bagenu; elementu gehiago ere badira, noski, kontuan hartu beharrekoak: euskal naziogintzan aktore politiko, sozial eta ekonomiko nagusien jarduera historikoa (euskal esparru publikoan aritu diren proiektu soziopolitikoaren arteko gatazkak barne) eta Espainiako eta Frantziako estatuarekin izandako harremanak (ireki diren prozesu erreformatzaile nahiz dialektikoak barne). Oraingoan, ordea, nagusiki, globalizazioaren eraginak izango ditut hizpide euskal naziogintzaren etorkizunari buruz hitz egiteko garaian.

Hitzaldian zehar hiru atal bereiziko ditut: lehenik, euskal nazioaz hitz egingo dut (Azurmendi erreferentziatzat hartuta); bigarrenik, egun bizi dugun globalizazio ereduak gure kultura politikoan duen eraginaz arituko naiz; eta, hirugarrenik, Euskal Herriko naziogintzaren etorkizuneko estrategiaz zerbait esan nahiko nuke.

### **Euskal nazioari buruz bi hitz**

Oso era ezberdinetan hitz egin genezake nazioari buruz. Beren burua estatuaren bitartez egituratzea lortu zuten eta duten nazioen egoera eta estaturik gabeko nazioen egoera zeharo ezberdina da. Nazionalismoa ikuspuntu ideologikotik aztertzen badugu ere, erraz jabetzen gara oso nazio proiektu ezberdinak zehaztu daitezkeela. Zerikusi gutxi dute EAJ-PNVren abertzaletasun historikoak eta 1968an ETaren V. asanbladaren bigarren zatiak aldarrikatu zuen abertzaletasun iraultzaileak. Horri guztiari nazio kontzeptuak azken bi mendeetan izan duen eboluzioa gehitzen badiogu, dena lantzea ezinezkoa litzateke. Nire helburua, ezinbestean, xumeagoa da: nazio edukien inguruko hiru kontzeptu hartu nahi ditut hausnarketarako: nazio kulturala, nazio politikoa eta nazio politikoaren erakundetzea. Azurmendik hizpide izan dituen hiru kontzeptu horietaz

baliatu nahi dut aipatu dudan sakoneko krisiari buruz hitz egiteko. Gerturatu nadin hiru kontzeptu horietara:

*Nazio kulturala.* Ni euskalduna naiz. Euskal hiztuna. Euskaraz pentsatzen duena. Errealitate sozial, ekonomiko, politikoa euskaratik eta euskarazko interakzioan eraikitzen duena. Azurmendik dioen bezala, «nazioa hizkuntzan errekonozitzen da» (Azurmendi 2017: 50). Komunitate kulturala ez da soilik komunikazio kode bat; hizkuntza da kulturaren erakundetzerik handien eta konplexuena, eta bere baitan biltzen ditu gizatalde baten sentitzeko, izateko eta jokatzeko moduak; kulturaren bitartez elkartzeko identifikazio edo nortasun kolektiboa sortzen da. Kultura eta komunitate jakin bateko kidezak egiten nau herritar. Esan beharrik ere ez dago kultura hori bere baitan askotarikoa (elkartzeko adierazpenak beti dira pluralak) dela. Komunitatea, Azurmendik ondo dioen bezala, «solidaritate bat da» (*ibid.*: 25). Herritar modura harreman sare ezberdinetan egituratzen da nire giza baldintza. Nazio kulturala, ezaugarri objektibo batzuen bitartez identifika daiteke (adibidez, hizkuntza, ohitura...), baina baita kultura horretan sortzen diren identifikazio subjektiboen bitartez. Egia da nazio kulturala hizkuntzatik harago doala (adibidez, kontsumoko balioak, maitasunari buruzko ideiak, historia, errealitateari buruzko hainbat ikuspegi...), baina hizkuntza da giza interakziotik sortzen den erakundetzerik aberats eta baliozkoena. Eta erabakigarria da gure elkartzeko nortasuna egituratzerako garaian. Hizkuntza bereganatu gabe ere, nazio kulturalarekiko (nazio politikoarekiko bezala) identifikazioa eduki liteke, eta, izan ere, jende askok badu. Baina hizkuntzak kohesio berezia ematen dio kultura komunitateari.

Ni euskal herritarra naiz, euskal hiritarra baino gehiago. Nire herritartasuna komunitate kulturalaren bitartez egituratzen da. Aldiz, hiritartasuna emandako zerbait da; inposatua ala ez, baina egitura politiko jakin batek aitortzen dio norberari baldintza hori (Espainiako hiritarra, Frantziakoa...). Maiz gertatzen da hiritartasuna aitortzen duen egitura politikoak herritartasun jakin bat inposatu nahi izatea ezarketa horren aitortpenik egin gabe.

Badira beren burua ‘munduko hiritar’ moduan aurkezten dutenak ere. Bada, munduko hiritarrik ez dago. Munduan ez dagoelako baldintza hori eskaintzen duen egitura politikorik. Errazagoa da munduko hiritarra sentitzea nazio hegemonikoetan aberri txikituetan baino.

*Nazio politikoa.* Azurmendik nazio kulturala eta nazio politikoa bereizten ditu: «[nazio] politikoa bere identitatearen eta diferentziaren kontzientzia lukeena» litzateke (*ibid.*: 52). Nazio kulturalak bere buruaren jabe izan nahi du, subjektu politiko bilakatu. Aro Modernoan nagusiki subjektu hori subiranotasunarekin eta estatuarekin identifikatu da. Gure herrian badira, noski, nazio politiko ezberdin batekiko atxikimendua adierazten duten euskaldunak. Estatua eskuratzeko gaitasuna izan duten nazioak beren nazioa garatzeko aukera gehiago izan dute; aldiz, egituraketa politiko propiorik garatzeko aukerarik izan ez duten nazioek askoz ere zailtasun handiagoak izan dituzte: «Botere sareen jabe ez den nazioa, luzarora, diluitua geratzen da eta higatuz joaten da» (*ibid.*: 52). Nazio politikoaren edukiei erreparatzen badiegu, ezaugarri nagusia kontzientzia subjektibo hori da, norberaren borondatea. Eta borondate hori baldintzatzen duten elementuak askotarikoak dira (horregatik, euskaraz ez dakien bat

senti daiteke euskotar), baina hizkuntzak eta kulturak garrantzi handia du, nire kasuan behintzat, kontzientzia politiko horretan. Edozein kasutan, ezinbestekoa da aitortzea naziokideen arteko identifikazioak askotarikoak eta konplexuak izan daitezkeela. Ikusiko dugu, globalizazioaren testuinguruan, bai nazio kulturala eta bai nazio politikoa subjektibizatu eta konplexuago bilakatzen direla.

*Nazio politikoaren erakundetzea.* Erakundetze horren emaitza estatua izan daiteke, edo beste edozein mailatako egitura politiko bat. Esan daiteke botere maila propioak norberaren nazio izaera baieztatzeko aukera gehiago eskaintzen dituela. Erakundetze prozesu horiek oso anitzak dira bere oinarritzko arauen egituraketari dagokionean, baina baita legitimazio prozesuetan ere; ez gara orain legitimazio prozesu horiek aztertzen hasiko, baina ‘herritarren erabakitze eskubidea’ edo ‘herrien autodeterminazio eskubidea’ bi prozesu bereizi dira.

Oso garrantzitsua iruditzen zait nazio kulturalaren, nazio politikoaren eta egitura politikoaren arteko bereizketa hori, nahiz eta hiruren arteko harremana agerikoa den: ez dago kulturaren garapenik kontzientzia politikorik gabe eta botere maila bat artikulatzen ez bada. Baina hiru kontzeptu horien arteko harremana ez da berdina historiako une guztietan; eta, bereziki, globalizazioaren testuinguruan, nazio kultural eta politikoaren biziraupena ziurtatzeko modu bakarra estatu batean egituratzea bada, gerta liteke inolako etorkizunik ez izatea. Ziurrenik, egun bizi dugun inguruneak hiru elementuen arteko harremana konplexuago bilakatzen du.

Azurmendik bereizketa horiek egiten ditu modernitatearen baitan nazio-estatuaren sorrera justifikatzen duten teorietatik urrunduz. Azurmendi Herodotorenganaino iristen da nazioaren izaera historiko eta prepolitiko hori esplikatze garaian. Azurmendirentzat identitate nazionala prepolitikoa da,

... normalean (edo beti) politizatua etortzen den arren. Politikaren eraginpean dago, baino ez da politikaren produktua. Lehenagokoa da politika baino (lehenagokotasun logiko nahiz ontikoan, ez derrigor denborazkoan). Horregatik eduki ahal ditu esijentziak eta ‘eskubideak’ edozein politikarekiko, edozein Estaturekiko. Eta hau (oinarritapen razional erlatibokoa izanik ere) ez da posizio esentzialista, fundamentala baizik, politikaren absolutizazioari eta, ondorioz, Estatu Boterearen arbitrarietate totalari à la Hegel, edo à la Stalin, hesia jartzeko. (*Ibid.*: 89-90)

Erabat urrutiratzen da, adibidez, Andersonek edo Ernest Gellnerrek nazio sorrerari eta nazionalismoari buruz duten ikuspegiarekin. Egile horiek estatu modernoaren sorrerarekin uztartzen dute nazio kontzeptua. Azurmendi erabat kritikoa da Hobsbawmek ordezkaten duen paradigma modernistaren ikuspegi konstruktibistarekin, non «nazionalismoak, estatu modernoarekin batera, nazioak sortu zituen» (Smith 2001: 114). Ikuspegi horren arabera, naziogintza burgesiaren eta inteligentziaren produktu bat dira. Zentzu horretan, nazionalismoak eta nazioek funtzio bat jokatu dute, baina orain globalizazioaren testuinguruan galtzen ari dira. Noski, Azurmendik ez du ukatzen modernitateak (eta estatu modernoaren sorrerak) naziogintzan duen eragina, baina urrundu egiten da nazioa estatugintzara mugatzen duten teorietatik.

Bereziki interesatzen zait egitura politikoaren aurretikako komunitatearen ideia hori. Euskal nazio eraikuntzan, herri ekimenak eta herritarren baitan sortutako izaera

ezberdineko erakundetzeak nazio garapena sistema politikoaren mendekotasunetik atera dute kasu askotan. Ukaezina da botere sareetan botere politikoaren garrantzia, eta botere politiko hori egitura ereduren batean adierazten da; baina egitura politikotik harago ere ekoizten eta sortzen da aberria.

Azurmendik adierazten dituen hiru ardatz horiek erabili nahi nituzke globalizazioaren eraginari buruz hitz egiteko. Aurretik, labur bada ere, galdera batzuk egin nahi nituzke. Zein da euskal kultur komunitatearen egoera? Eta nazio politikoarena? Eta zein da gure nazio politikoaren erakundetze maila?

Euskarazko hiztunen komunitatetik hasita, 60ko hamarkadan euskarak bizi izan zuen berpizkundea erabat lotuta dago bi eragile nagusitara: alde batetik, frankismoak Euskal Herriari eta euskarari eginiko ukazioak erreakzio indartsu bat sortu zuen (hasiera batean isilekoa izan zena, baina gero adierazpen eta erakundetze publikoagoak garatu ziren); eta, bestaldetik, euskara, gizarteratze akademiko eta sozialerako tresna moderno bilakatuz (euskara batua funtsezkoa da horretan), herrigintzaren modernizazio prozesuarekin eta garapen ekonomiko eta sozialarekin lotu zen (horren adibide garbia dira ikastolak, kooperatibak). Hizkuntzaren biziberritzea, neurri handi batean, herri ekimenari zor zaio, eta baita euskal erakunde sistematik bideratutako herri politikei ere (hezkuntza sistema, EITB, hizkuntza eta kultur politikak, administrazioaren euskalduntzea...). 60ko hamarkadako berpizkundeari bultzada garrantzitsua eman zion trantsizio politiko garaian izandako instituzionalizazioak. Baina hori guztia posible izan zen Euskal Herriak oinarri komunitario sendo bat zuelako. Ekimen kultural eta politikoa posible izan zen ekimen horiek arnasten zituen komunitate bat zegoelako. Nazio kulturala babesteko egitura politikorik ez eta frankismoa indarrean zegoenean ere, herriak, gizarte sarete eta gizarte erakundetzeen bitartez jarraitu zuen euskarazko errealitate objektiboa sortzen; esan beharrik ez dago komunitate kultural horretan nazio kulturalaren garapena erabat uztarturik zetorrela herri izatearen kontzientzia politikoarekin.

Euskarak aurrera egin du, zalantzarik gabe. Baina, justu gure hizkuntzak egun bizi duen egoera benetan zaila da, hain zuzen ere sekulako gizarte eraldaketa burutzen ari delako; nazio kulturalak eta nazio politikoak oin hartzen duten komunitatean eraldaketa sakonak gertatzen ari direlako. Erabat aldatu dira esparru publikoan errealitatea sortu eta gizarteratzeko baldintzak; erabat aldatu da komunitateen oinarritzko kohesio maila; erabat aldatu dira gizarteazko jokabideak eta erabat aldatu da gizakiok komunitatearekin dugun harremana (baita komunitate politikoarekin ere). Esfortzu handia egin dugu alor ezberdinetan (hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan, herri ekimenean...), baina nazio kulturalaren garapen baldintzak (eta, beraz, hizkuntzarenak) eraldaketa sakonak bizi ditu, globalizazioa bitarteko. Horrek komunitatearen garapen baldintzak birpentsatzera eramane beharko gintuzke.

Nazio politikoarekin ere, hizkuntza komunitatearen antzeko zerbait gertatu da. Euskal Herrian (berezi Hego Euskal Herrian), azken 60 urteetan, nazio politikoak garapen handia izan du ezbairik gabe. Horretan lagundu du frankismoak gure herriaren aurka sustatutako ekimenezikiko erreakzioak; horretan lagundu du euskal komunitatearen berpizkundeak 60-70etan; horretan lagundu dute, ezbairik gabe, trantsizio politikoan Gernikako Autonomia Estatutuaren bitartez sortu ziren erakunde

publikoek. Eta erabat negatiboki eragin du abertzaleen arteko gatazka sutsuak (nazio politikoaren zatiketa eta kohesio faltak). Gaur, euskal nazio politikoak nazio kulturalak bizi duen krisi bera bizi du.

Globalizazio eredu honek demokrazia liberala krisian sartu eta egitura politikoen eragiteko gaitasuna nabarmen murriztu du. Herritarrok gure kultura komunitatearekin dugun lotura ahuldu egin da, gizarte kapitalak behera egin du eta euskal herritarrok nazio politikoarekin dugun atxikimenduak izaera eraldatzailea galdu du. Euskal Autonomia Erkidegoan, alderdi abertzaleek hauteskundeak irabazi arren, nazio politikoa ekoizteko gaitasun maila asko murriztu da; hauteskundeak irabazteko gaitasuna edukitzea gauza bat da, eta erakundeetan nahiz gizartean eraldaketarako gaitasuna izatea beste gauza bat.

Azken 60 urteetan euskal abertzaleen naziogintzara bideratutako estrategiak agortuta daude. Baieztapen horrekin ez ditut estrategia guztiak parekatu nahi; ETaren estrategia armatua, ikuspuntu etiko eta demokratiko batetik onartezina izateaz gain, zatitzailea, antzua eta euskal nazio askapenaren kontrakoa izan da; baliozko energia sozial gehiegi galdu da alferrik. Aldiz, nire ustez, abertzaletasun historikoaren estrategia, oinarri demokratikoen balioetan garatzeaz gain, askoz ere eraginkorragoa izan da maila bateko erakundetze politikoa posible egin duelako eta, autogobernuari esker, hainbat eta hainbat errealitate baikor sortzeko aukera izan dugulako herriaren mesedetan.

80ko hamarkadan, abertzaletasun historikoak hartu zuen euskal erakundeen zuzendaritza, eta sistema instituzional publikoa berreraikitzen eta produkzio sistema berpizten saiatu zen. Neurri handi batean, gerraostean jaiotako belaunaldi oso bateko zuzendutako prozesu hari esker, gaur egun garapen eta ongizate maila handiaz gozaten dugu. Abertzaletasun historikoak energia gutxiago inbertitu du bizitza sozialaren artikulazioan, komunikazio espazioaren konfigurazioan, identitate nazionala birsortu eta gizarteratze lanean. Urte hauetan guztietan Ezker Abertzaleak bere estrategia kalea okupatuz garatu du, eta ahalegin handia egin du espazio alternatibo bat sortzeko alor guztietan. 2011 arte, Ezker Abertzaleko ordezkari ezberdinek burutzen zuten lan instituzionala estrategia armatuaren garapen baldintzetara mugaturik zegoen. Ezker Abertzaleak euskal sistema instituzionala deslegitimatzeko ahalegin berezia egin du urte hauetan. 2011tik aurrera, Ezker Abertzalean estrategia politikoaren aldaketa etorri da, horren ondorioetako bat ETaren desagertzea delarik.

Abertzaletasun historikoaren strategiak zalantzarik gabe eraginkortasun maila handiagoa izan du bi ikuspegitatik: alde batetik, balio demokratikoetan oinarritutakoa den neurrian, legitimazio maila handiagoa lortu du; eta, bestaldetik, berari zor zaio egungo euskal erakunde sistema. Bere akats eta muga guztiekin ere lorpen handi bat izan da.

Sarritan esan izan dut Ezker Abertzalearen eta ETaren estrategia aldaketa, neurri handi batean, gizarte aldaketak ekarri duela; estatuak erabilitako strategiak ere bai, euskal gizartearen deslegitimazio aktiboak ere bai, baina oinarrian dagoena gizarte aldaketa da. Eta gizarte aldaketa hori bera da euskal herrigintza eta euskal erakunde sistema krisian jarri dituen.

Nazio politikoa egituratzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoaren adibidea hartuko dut. Iparraldean eta Nafarroan beste egoera bat gauzatu da, baina Euskal

Autonomia Erkidegoaren adibideak balio du euskal naziogintzaren egituratze politikoari buruzko hausnarketa egiteko. Trantsizio politikoan adostu zen Gernikako Autonomia Estatutua. Garrantzitsua izan da, eta, zalantzarik gabe, euskal nazio politikoari erreferentzialtasun bat eman dio. Baino, urte hauetan guztietan, Espainiako Estatuaren kudeaketa politikoa espiritu zentralizatzaile iraunkor batek ezaugarritu du, estatu plurinazional baten benetako eskakizunetatik aldenduz; Gernikako Autonomia Estatutuaren garapena oztopatzeaz gain, bere aurrerapenak, kasu askotan, gobernuaren ardura izan dutenen behar eta interes partzialen menpe egon dira. Estatuko alderdi nagusiek modu bertsuan jokatu dute. Estatuko komunikazio egituretatik desberdinen arteko akordioan oinarritutako errelatua sortzen saiatu dira batzuetan, baina Espainiako nazioaren banaezintasun konstituzionala zalantzan jartzeko inolako asmorik gabe.

Espainiako konstituzio sistemak ez dio erantzun nazio aniztasunaren garapenari (eskubideen berdintasun klabea), baina estatuak, denbora honetan guztian, euskal nazioaren hegoaldeko aldearen gaineko eragina eta kontrola areagotu ditu. Adibide mediatiko, judizial, ekonomiko eta politiko ugari daude.

Kanpo faktoreez harago, euskal nazio-erakuntza prozesua ahultzen duten barne prozesuak ere nabarmentzeari ezinbesteko deritzot. Lehenik eta behin, Ezker Abertzalearen eta abertzaletasun historikoaren arteko antagonismo etiko eta demokratikoa; prozesu horren adierazle nagusia ETA izan da, euskal gizartearen zati handi bat erre du eta Ezker Abertzaletik gertu dauden gazte askoren energia sozial positiboa baliogabetu. Familia nazionalisten arteko gorrotoa eta lehia sortu du eta naziogintzari buruzko galdera nagusien eztabaida errealitatearekin lotura gutxi duen agertokira eraman du. Bestalde, euskal sistema instituzionalaren agortze prozesu bat gertatu da; ez horrenbeste zerbitzu ezberdinen herri politiken garapenean, baina bai nazio politikoa ekoizteko gaitasunari dagokionean. Azkenik, eta ez da arazo txikia, kontsumo-sozietateen balio indibidualistak bereganatzen dituen herrien anestesia egoera bizi dugu guk ere, eta, ondorioz, proiektu kolektiboen geldialdi nabarmenean gaude.

## **Globalizazioa eta eraldaketa ekonomikoa, sozial eta politikoak**

Mundu osoan, baita Mendebaldeko gizarteetan ere, abiadura bizian ari dira gertatzen eraldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak. Bi gai nagusirekin dago lotuta eraldaketa horren arrazoi nagusia: alde batetik, garapen zientifiko eta teknologikoarekin, eta garapen hori jakintza nahiz ekoizpena sortzeko sistemetan aplikatzearekin; eta, bestetik, merkatu libreko sistema kapitalista garatzeko 'ereduarekin', zeina demokrazia liberalen sistemari estu lotuta baitago. Jakintza, prozesuak eta produktuak ekoizteko gaitasun handiagoa duten herrialdeek bultzatutako hazkunde ekonomikoak modu berezi batzuk sortu ditu pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko, globalizazio eredu bat elikatuz. Ulrich Beckek honela definitzen du globalizazioa:

Estatu nazional subiranoak nazio mailako aktoreen eta horien botere probabilitateen, orientazioen, identitateen eta askotariko sareen bidez nahasteko eta inbrikatzeko prozesuak. (Beck 2018: 29)

Anthony Giddensek globalizazioaren dimentsio aniztasuna gogorarazten digu:

Globalizazioa politikoa, teknologikoa eta kulturala da, ekonomikoaz gain. Batez ere, hirurogeiko hamarkadaren amaierakoak diren komunikazio sistemen aldaketek eragin dute. (Giddens 2007: 7)

Globalizazioak mundu mailan gertatzen diren prozesuak eskatzen ditu nahitaez, nazio-estatuaren testuinguruan gertatzen diren bizi eskalak gaindituz edo beste aldi historiko batzuetan maila txikiagoetan gertatzen zirenak gaindituz. Espazio berri horren konfigurazioak ezinbestean dakar mundu berri bat irekitzea (harreman baldintzekin) eta aurreko bizitza espazioak aldatzea, globalizazio prozesuak duen eraginagatik. Beckek gogorarazten du:

Aspalditik bizi gara mundu mailako gizarte batean, eta horrek oinarriko bi gauza dakartza berarekin: alde batetik, politikoki antolatutako botere eta gizarte harremanen multzo bat, naziokoa eta estatukoa ez den moduan antolatua; eta, bestetik, mugen gainetik eta horietatik harago bizitzeko eta jarduteko esperientzia. Lehen modernitatea berezko duen estatuaren, gizartearen eta gizabanakoaren batasuna lausotzen da hemen. (Beck 2018: 146)

Ildo beretik, Raffaele Simonek (demokraziaren itxaropen faltsuek sortu duten frustrazioari buruzko azterketa interesgarri batean) azpimarratzen du globalizazioaren alderdirik ikusgarrienetako bat dela muga kontzeptua lurruntzea (2016: 163).

Baina mundu mailako gizarteak ez ditu ordeztzen nazio-estatuak, eskualdeen edo tokiko esparruan garatzen diren gizarteak; eta, hain zuzen ere, Beckek azpimarratzen duen bezala, harreman hori gatazkatsua izan daiteke:

Mundu mailako gizartearen esperientzia mundu mailako gizartearen funtsezko ezaugarria denean, orduan, gizarte kultur aniztuna ez da entelekia bat, errealitate globala baizik. Hori ezin da ez hautatu, ez baztertu; ez du automatikoki tolerantziara eramaten, eta diskriminaziora eta xenofobiara eraman dezake. Mundu mailako gizartearen anibalentziak leku batean modu gatazkatsuan sartzen direnean, horrek ez du esan nahi gizarte esperientzia kultur aniztunetik porrot egin dutenik, baizik eta, ziurrenik, bizimodu transnazionalak eta transkulturalak eguneroko ogi bihurtzen diren garai sozial baten hasiera dela. Errealitate horiek aurrez aurre ikusi nahi ez dituen eta bere burua eta gainerakoak kultura (herriko) monolitikoei dagokienez pentsatzen jarraitzen duen biztanleriak zailtasun berezia izango du mundu mailako gizartearen nahas-mahas guztiz normalari aurre egiteko. (Beck 2018: 130)

Globalizazioaren indar bultzatzailea eragile ekonomikoek gauzatzen dute batez ere, garatu ahal izateko estatuko esparruak gainditzen dituzten espazioak eta merkatuak eraiki behar baitituzte. Ildo horretan, globalizazio ekonomikoaren prozesuak sistema politikoa arrastatzen eta baldintzatzen du, herrialde askotan baldintza sozial jakin batzuk sortzen ditu eta, batez ere, prozesu globalen buru diren herrialdeen edukiak biltzen dituen nazioz gaindiko kultura sortzen du. Egoera horrek, estatu baten barruko nazio hegemonikoari eragiteaz gain, bereziki eragiten die askoz babes eta egituraketa politiko txikiagoa duten herrialdeei. Hori da Euskal Herriaren eta euskal nazioaren kasua.

Jarrera kritiko batez, Beckek 'globalismoaz' hitz egiten du:

Mundu mailako merkatuak zeregin politikoa husten edo ordeztzen du; hau da, mundu mailako merkatuaren ideologia edo liberalismoaren ideologia, zeinak jokatzeko baitu era monokausal eta ekonomizista batez, eta globalizazioaren dimentsio aniztasuna dimentsio bakar batera murrizten baitu, dimentsio ekonomikora, alegia. Dimentsio hori linealki ere hartzen du kontuan, eta gainerako dimentsio guztiak –globalizazio ekologikoa, kulturala, politikoa eta soziala– mahai gainean jartzen ditu (noiz eta hala egiten badu), soilik mundu mailako merkatuaren sistemaren ustezko nagusitasuna nabarmentzeko. (*Ibid.*: 27)

Ildo beretik, Augusto de Venanziren ustez, globalizazio terminoak korporazio pribatu handiaren sistemaren hedapen desarautuaren prozesua izendatzen du (2002: 46). Baina:

Korporazioaren eremu korporatiboaren identifikaziotik abiatuz, aldi berean, globalizazioaren gaiari buruzko hainbat hurbilketa integratu daitezke, hala nola ekonomikoa (merkataritza eta finantza transakzioak areagotzea, mundu mailako merkatu bat sortzea eta ekoizpena birkokatzea); soziala (lanaren banaketa sozialaren birkonfigurazioa); kulturala (Mendebaldeko balioen unibertsalizazioa eta balio horien atzeraeraginerako moduak); politikoa (nazioaz gaindiko arau sistema baten integrazioa eta nazio-estatuarekiko harremana), eta ekologikoa (naturaz jabetzea eta jatorri teknologikoko ingurumena kaltetzea), guztiak korporazio pribatu handiaren sistemak iragazten dituelarik. (*Ibid.*: 51)

Globalizazio ekonomikoak esparru global bat eskatzen du. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei esker, ekonomia desmaterializatu eta desitxuratu egin da; horrek esan nahi du benetako ekonomia produktibotik urrun dagoen merkatuan jarduteko aukera dagoela, bai eta truke logikak estatuko esparrua gainditzen duen transakzioetan parte hartzeko aukera ere. Horrek ez du esan nahi mundu guztiak esparru globalean jarduten duenik; baina eragile askok dagoeneko egiten dute, eta errealitate horrek guztiei eragiten die: adibidez, ekonomiaren globalizazioak behartzen ditu enpresak joko esparru askoz ere zabalago eta lehiakorragoan jokatzera; behartzen ditu eragile ekonomikoak lehiatzera, balio erantsi handiagoa sortzera eta kostuak murriztera. Sektore ekonomiko helduetan jarduten duten enpresa askok deslokalizatu egin dituzte beren enpresak garapen bidean dauden herrialdeetara. Enpresek malgutasun handiagoa izan behar dute, etengabe berrikuntzara bideratuta egon behar dute, eta lan baldintzak gehiago indibidualizatu behar dituzte.

Globalizazio prozesuak, maila ekonomikoan, ‘nazio-estatuaren’ ekonomien joko arauak aldatzen ditu, finantza ekonomiak ekoizpen ekonomiarekiko duen nagusitasuna ezarriz, eragile ekonomikoak eraldaketa izugarri batera behartuz; horrek ‘lana’, ‘enpresa’, ‘lan harremanak’ kontzeptuak iraultzen ditu, eta baldintza sozial nahiz kultural berriak sortzen dituzten joko arauak ezartzen ditu. Globalizazio ekonomikoaren ondorioz, korporazio handiak bizitza sozial eta kulturaleko espazioen nagusitasunean sartu dira, eta tokiko eragile ekonomikoen garapena baldintzatzen ari dira, eragiteko gaitasuna murrizten baitiete. Merkatu askatasunean oinarritutako egungo globalizazio ekonomikoaren ereduak (zailtasun handiak baitituzte egitura politiko eta demokratikoei beren kontrol demokratikoa gauzatzeko) desberdintasun handiak sortzen ari da, baliabide teknologikoei eta jakintzari dagokienez, bizimodu globalaren mundura iristeko gaitasuna dutenen eta ez dutenen artean; eta, batez ere, menderatze errealitate berriak sortzen ari da.



Gero eta desberdintasun handiagoko prozesu hori hainbat alderditatik azter daiteke; Thomas Pikettyk (2019) errenta desberdintasunak azpimarratzen ditu eta ekonomiaren demokratizazio handiagoa eskatzen du, baina eremu globalera iristeko gaitasuna duten herrialdeen eta gaitasun hori ez dutenen arteko egiturazko desberdintasunek harreman egitura gero eta desberdinagoa eta jasangaitzagoa erakusten dute; egile askok Mendebaldeko herrialdeetan metropoli handien eta barnealdeko hiri nahiz eskualde txikien artean gertatzen ari diren egiturazko desberdintasunak ere azpimarratzen dituzte. Ildo horretan, Christophe Guilluyk, esaterako, azpimarratzen ditu klase ertainaren desagertzea eta klase altuenek sektore txirotuak bazterrean uzteko egindako hautua:

Egia esan, gizarte ireki eta globalizatua da goi-mundua bere gotorlekuetara, bere enpleguetara eta aberastasunetara atzera egitea. Bere indarguneen babesean, XXI. mendeko burgesia aurrerakoiak herria urrundu du, eta jada ez du bere premiez arduratzeko asmorik. (Guilluy 2019: 96)

Egungo globalizazio ereduak garatzen dituen desberdintasunak eta baldintza sozial, politiko eta ekonomikoak dira demokrazia liberalen krisiaren gai eta faktore nagusietako bat.

Zygmunt Bauman soziologoak sakon aztertu ditu zein ondorio dituzten merkatuaren indarrak eta kontsumoaren logikak errealitatearen eraikuntza sozialean; eta, noski, egoera horrek zuzen-zuzenean eragiten dio nazio eraikuntzari.

Globalizazioak ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkundearen logikan oinarrituta funtzionatzen du. Baumanen arabera, merkatua eta kontsumoa elementu nagusi bihurtu dira gure gizarte bizitzaren konfigurazioan; gure premiak asetzean ezartzen dugun harreman logika ez da mugatzen premia handiko produktuetara, baizik eta iristen baita harreman politiko eta sozialeko beste logika batzuetara ere (hauteskunde portaera edo bikote harremanak, adibidez). Harreman horiek indibidualismoa indarrez azaleratzen den eta komunitateen haustura gertatzen den testuinguru sozial batean gertatzen dira (benetako konpromisozko komunitateetatik izaera estetikoko komunitateetaranzko trantsizioa gertatzen da). Robert Putnamek (2002) ere ideia bera azpimarratu du kapital sozial komunitarioaren murrizketaz hitz egiten duenean. Gizarte indibidualista baten aurrean gaude, lotura komunitario ahulak, pluralak eta konplexuak dituen pentsatzeko eta jarduteko moduetan, eta zoriontasuna merkatuak ezartzen dituen baldintzei lotuta dago.

Globalizazio eredu honek euskal nazio gintzan duen eragina aztertu nahi nuke. Gure tesi nagusiaren arabera, egungo globalizazio ereduak nazio-estatuaren esparrua gainditu eta ahultzeaz gain, estatuaren izaera demokratikoa ahultzen du eta mundua kontrol demokratikoaren defizit garrantzitsuan sartzen du. Estatuak, espazio krisia ez ezik, bere nortasunaren krisia ere bizi du; alde batetik, egitura politikoek ez dituzte kontrolatzen errealitate ekonomiko eta sozial berriak; eta, bestetik, herritarren identitate politikoak eraldaketa sakonak bizi ditu, gure ordezkapen sistemako demokraziaren egitura politikoaren errealitatea baldintzatzen dutenak.

Yascha Mounken iritziz, estatuak deslegitimazio aktiboko prozesu bat bizi dute, ez dutenez benetan erantzunik eman herritarrek gaur egungo testuinguruan planteatzen dituzten erronken aurrean: «Demokrazia liberalak, herritarrentzat ondasunak lortzeko

gaitasuna galdu ahala, errendimendu krisi sakonean sartu dira» (Mounk 2018: 136). Demokrazia liberalen krisiaren azterketak hiru joko eremu ditu, arretaz aztertu beharrekoak:

1. Lehenik eta behin, politika publikoen eraginkortasunari eta demokratizazio prozesuei dagokienez, egitura politikoen erantzuna antolatzeke ezintasuna.
2. Bigarrenik, herritarrek sistema politikoarekiko, erakunde sistemarekiko eta alderdien sistemarekiko duten desafekzioa (biztanleriaren zati handi batean, izaera antidemokratikoa duten proiektuak legitimatzean datza haserrea).
3. Hirugarrenik, alderdi politikoek gero eta gaitasun txikiagoa dute herri borondatea erakunde sistemaren benetako ordezkari izateko.

Testuinguru horretan, kultura politiko batez mintzatuko gara, sozializazio ahula, sistemaren desafekzio eta deslegitimazio izugarria, eta, termino demokratikoetan, jarrera politiko apatikoa dituen ezaugarritzat, non eta ez duen joera aktibo bat prozesu antidemokratikoak legitimatzearen alde.

Baumanen arabera, globalizazioari emandako erantzunak bi kategoriatan sailka daitezke:

Lehen kategoria bat dator, gutxi gorabehera, joera komunitarioen hazkunde bizkorrekin [...] agian nazioaren elkargoa gai ote den galdutako konfiantza berreskuratzeko, herritarren errepublikak inolaz ere eman ezin duen segurtasuna emateko. Aldeen arteko elkartasuna lortzea hain zaila baldin bada (eta, egia esateko, grina bereziz bilatzen ez bada), agian jo daiteke jatorrizko esteken elkartasunera, eta prozesu politikoaren aurretik ibili, beraren negoziazio zailaren, konpromisoen eta emaitza zalantzarrien urratsei jarraitu baino lehen. (Bauman 2017:109)

Bigarren kategorian bildutako erreakzioak mugatzen dira indar ekonomikoak berriz ere kontrol demokratikora (etikoa, politikoa eta kulturala) lotzeko eginkizunetara, kontrol horretatik ihes egitea lortu baitzuten, bereizita eta giza elkartasuna erabat suntsituta. (*Ibid.*:110)

Ildo beretik, Manuel Castells soziologoak honako hau dio:

Globalizazioaren beldurrak nazioan babesleku bat bilatzera bultzatzen du. Terrorismoarekiko beldurrak errazten du estatuaren babesa aldarrikatzea. Kultur aniztasunak eta immigrazioak eragiten dute, globalizazioaren funtsezko dimentsioak izan arren, nortasun komunitateari deitzea. (Castells 2018: 35)

Egia esan, erreakzio horren adibideak ugari dira munduko demokrazia aurreratuenetan: Donald Trump AEBetan, *bretxit*-a, eskuin eta ezker populismoen goraldia Europa osoan eta Latinoamerikan...

Mounkek dioenez, hiru baldintza bete behar dira demokrazia aukera bakarra dela ulertzen jarraitzeko: lehenik, herritar gehienek demokrazia liberalarekin oso konprometituta egon beharko lukete; bigarrenik, demokraziarekiko hautabide autoritarioak baztertu beharko lituzkete; eta, azkenik, benetako boterea duten alderdiek edo mugimendu politikoek bat etorri beharko lukete demokraziaren oinarriko

arauetan (Mounk 2018). Levitsky eta Ziblattek, ildo berean, autoritarismoaren funtsezko lau adierazle adierazten dituzte: bat, jokoaren arau demokratikoak baztertzea (edo oso era ahulean onartzea); bi, aurkari politikoen legitimitatea ukatzea; hiru, indarkeria onartzea edo sustatzea; eta lau, oposizioaren askatasun zibilak murrizteko alde aurreko jarrera, komunikabideak barne (2018: 81-82). Ikuspegi demokratikotik aurreratuen dauden herrialdeetara mugatuta, erraz egiazta genezake gero eta herritar gehiagok ez luketela kalitate demokratikoaren adierazleen langa hori gaindituko.

Demokrazia liberalen krisi sakona eragiten ari diren zenbait alderdi azpimarratu ditugu: nazio-estatu gainditzen duten esparru berriak sortzea; estatuko egitura politikoek herritarren beharrei erantzuteko eta baldintza demokratikoak sortzeko gaitasunik ez izatea; eragile politikoen pribatizazioa eta desafekzio politikoak... Testuinguru horrek kultura politikoan eragiten dituen eraldaketa batzuk zerrendatu aurretik, egungo egoeran eragiten duten egiturazko lau aldaketa azpimarratu nahi nituzke, kultur eta nazio eraikuntzari eragiten diotenak.

Lehenik eta behin, iritzi publikorako eta sozializatorako (baita sozializazio politikorako ere) espazioak aldatu egin dira, bai norbanakoentzat, bai taldeentzat. Hori, funtsean, bi arrazoiengatik gertatzen da: batetik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek ahalbidetzen duten errealitatea sozialki eraikitze modu berriengatik; eta, bestetik, zenbait komunikazio taldek iritzi publikoko espazio tradizionalak gainditzen dituzten errealitateak sortzeko duten gaitasunagatik.

Bigarrenik, sozializazio egituren atomizazioak, kontsumora bideratutako gizarte indibidualista batekin batera, interakzio sozial zatikatuak sortzen ditu, eta horrek zaildu egiten du narratiba sozial partekatuak eraikitzea. Espazio komunitarioen hausturak eta interakzio espazioen pribatizazio politiko eta sozialak erakusten dute sistema kudeatzen duten erakunde eta eragile politikoen deskonexioa gizartearekiko, eta alderantziz ere bai. Gaur egun, herritarrek kanpoko fenomenotzat hartzen dute gertaera politikoa, eta, kasu askotan, hauteskunde agendak markatutako estimuluei erantzuteko produktu mediatiko gisa kontsumitzen dute. Neurri batean, estatuak eragiteko gaitasun txikiagoa dute, eta herritarrek sistema demokratikoarekin komunitate loturarik izan gabe jarduten dute.

Hirugarrenik, errealitate sozialaren eraldaketa eta baldintza publiko demokratikoen sorrera, neurri handi batean, nazio-estatuaren baldintzetan elkar eragiten ez duten eragile ekonomiko, politiko eta sozialen mende dago. Errealitate horrek estatuko egitura politikoak eraldatzeko gaitasun txikiagoa dakar; baina, era berean, desorekatutako agertoki politiko, sozial eta ekonomikoak sortzen dira, testuinguru desarautu batean, non eragiteko gaitasun handiagoa duten eragileen garapen baldintzak nagusitzen baitira.

Laugarrenik, globalizazioak eta bere garapen baldintzek agenda politiko berri bat jarri dute mahai gainean: klima aldaketa, aniztasunaren kudeaketa, desberdintasunen aurkako borroka, espazio publikoen segurtasuna, digitalizazioak eragingarri bizi baldintza indibidual eta kolektibo ezdeusak... Agenda politiko berri bati egin behar diogu aurre, eta, gainera, ziurgabetasuna, etena eta egonkortasunik eza ezaugarri dituzten garapen baldintzei.

Ikuspuntu horretatik, kultura politikoaren eraldaketaren funtsezko ezaugarri batzuk azpimarratu nahi nituzke, demokrazia liberalen krisiaren testuinguruan:

1. Gizarte indibidualista batean bizi gara, eta bizitza komunitarioarekin edo publikoarekin zerikusia duten alderdi guztiek garrantzi handia galtzen dute pertsonentzat.
2. Herritarrek gero eta joera handiagoa dute eragile politikoekin eta bizitza politikoarekin zerikusirik ez dutela sentitzeko; politika arrotza da, bizitza propioa du eta herritarrekin noizean behin jartzen da harremanetan. Politika pribatizatzekeo prozesua da. Peter Mairrek gogoratzen duenez, «Mendebaldeko Europa osoan, eta ziurrenik demokrazia aurreratu guztietan, herritarrak politika nazionaletik aldentzen ari dira» (Mair 2017: 59).
3. Sozializazio politikoak ahula da: politikarekiko interes apala dago, eta errealitate politikoak, komunitate politikoak, iritzi publikoaren espazioa nahiz sistema politiko eta instituzionala osatzen duten elementuak gutxi ezagutzen dira. Herritarrek arduradun publikoen eta alderdi politikoaren arduradunen ordezkariak jarduerarekin identifikatzen dute gertaera politikoak. Politikarekin, bizitza publikoarekin eta ekintza instituzionalarekin lotzen diren edukietako asko ez dira gertakari politiko gisa identifikatzen.
4. Eragile eta aparatuek politikoak gizartearen atxikimenduaren eta zilegitasunaren alde lehiatzen dira, eta herrialdearen politikari eta garapen sozial eta ekonomikoari eragiten dioten erakunde sistemaren eta gizarte espazioen kontrol gaitasun txikiagoa dute. Lehia horren edukiak bi elementu garrantzitsuren mende daude: batetik, herritarrek ekintza politikoak kontsumitzen duten modua (ikus-entzunezko ekoizpen eta kontsumo agertokiak); eta, bestetik, herritarrek politikarekin duten egiturazko erlazioa (distantzia handia, azaleko erlazioa...). Eragile politikoaren arteko eztabaida eta harreman politikoak kontsumi daitezkeen titularren eztabaidan oinarritzen da. Herritarra, neurri handi batean, aktore politikoek antzeztu dituzten ahari borrokez kanpoko aktore gisa ari da parte hartzen; ikus-entzunezko agertokietan gertatzen den borroka politikoak neke eta desafektzio handia eragiten ari da.
5. Eragile politikoaren eta gure sistema instituzionalaren arazo ekonomiko eta sozialei eraginkortasunez aurre egiteko gaitasun erlatiboak badiu eragina gertakari politikoarekiko konfiantza krisian. Gure sistema instituzionalaren ordezkariak-krisian eragiten ari dira, batetik, sistema ekonomikoaren zati handi baten kontrol demokratikoaren hutsuneak eta, bestetik, globalizazioaren testuinguruan sortzen ari diren errealitate berriei aurre egiteko instituzionalizazio defizitak.
6. Eragile politikoek eta erakundeek herritarrekiko –alderantzizko norabidean, berdin– dituzten jokabide kodeak balio konplexuek egituratzen dira, eta zentzu krisi handi bat ari dira sortzen. Desadostasun handia dago ekintzaren eta elkarrekiko itxaropenen artean, eta, gainera, gertakari politikoaren kontzeptualizazio zatikatuegi bat gertatzen da, agertoki partekatu bat eratzea eragozten duena.
7. Parte hartze politikoak eraldaketa kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua jasan du. Herritarrek politikarekiko duten posizio berriak aldaketa garrantzitsu bat

dakar parte hartze politikorako moduetan (gero eta gutxiago konbentzionala da, gero eta espazio gehiago garatzen dira, ez soilik politikoak; parte hartzeko edukiak askotarikoak dira, eta parte hartzeko moduetan gero eta garrantzi handiagoa dute jakintzaren gizartearen berezko tresnek).

## **Etorkizuneko herri estrategiari buruz**

Aurreko lerroetan aipatu dugun moduan, euskal komunitatearen eta nazio politikoaren garapen baldintzak zeharo aldatu dira Euskal Herrian. Alor guztietan jabetu gara aldaketaz: zergatik ez da ikusten ETB1? Zergatik jaitsi da nabarmen gazteengan euskararen erabilera? Zergatik alderdi politikoek ez dute herri estrategia eraldatzaile berririk egungo testuingurua ikusita? Zergatik egin du behera herritarron kontzientzia politikoak? Duela gutxira arte «independentzia eta sozialismoa» aldarrikatzen zuten batzuek, eta beste batzuek «erabakitzeke eskubidea bereganatuko duen oinarritzko arau instituzional berri bat». Errealitateak erakusten du helburu guztietatik urruti gaudela.

Egun, euskal abertzaletasunean oin hartzen duten familia nagusiek ez dute euskal nazioagintzarako ez narratiba sendorik, ez estrategiarik, eta eskuartean ditugun eguneroko tresnek eskaintzen dituzten aukeren barruan garatutako herri politiken bitartez eraikitzen dugu biziraupenerako egunerokoa. Krisi hau ez da aktore politikoen sisteman bakarrik gertatzen, baizik eta gizarte antolatuan eta herritarren baitan ere burutzen da. Hitzetik hortzera darabiltzagu komunikazio publikoan gauzatzeko gai ez garen kategoria eta helburu politikoak.

Zer egin, beraz? Oso labur bada ere, hiru ideia nagusi landu nahi nituzke etorkizuneko euskal herrigintzaren garapen estrategikoari dagokionean: agenda politiko berria geureganatu, nazio kulturala eta politikoa indartzeko botere sareen estrategia garatu eta erakundetze politikoaren prozesuan alderdi abertzaleen arteko herri estrategia bateratu bat garatu (pragmatikoa eta aldi berean eraldatzailea gertatuko dena).

*Agenda politiko berri bat dago munduan.* Herri bat izaten jarraitu nahi badugu, munduan lehiatu eta errentagarriak (sistema kapitalistan) izango diren euskal enpresak behar ditugu, aberastasuna sortu behar dugu (banatu ahal izateko ezinbesteko baldintza) eta berehalako etorkizunean 'lana' zer izango den eta gizartean zer funtzio izango duen hausnartu behar dugu. Inteligentzia artifizialera konputazio kuantikoa barneratuz, jauzi teknologiko handi bat ematera behartuta gaude, karbonorik gabeko ekonomia berri bati ekitera behartuta gauden bezala aldaketa klimatikoari dagokigun arduraz aurre egin nahi badiogu. Alor sozialean, izaera ezberdineko desberdinkeriei aurre egiteko estrategiak garatu behar ditugu: emakumeen eta gizonen artekoari, hizkuntzen eta kulturen artekoari eta gizarte bazterketari aurre egiteko estrategiak. Agenda politiko berri horretan, euskarak eta euskal kulturak ere eduki eta forma berrietara egokitzeke ahalegin berezi bat egin beharko dute. Agenda hori ez da, noski, nire burutazioa, Nazio Batuen Erakundeak 2030 agendan adierazten dituen edukiak baino ez dira. Agenda politiko berria gizartearentzat, gizarte eragile eta antolatuarentzat eta egitura politikoarentzat. Gu herri txikia gara. Ez dugu agenda guztia batera betetzeko aukerarik,

ezta alor guztietan liderrak izateko aukerarik ere. Erabaki egin behar dugu zein geureganatu behar ditugun ardatz moduan.

Agenda politikoa geureganatzea bezain garrantzitsua da nazio kulturalen eta nazio politikoan pentsatzea. *Ez dago agenda politiko berririk komunitate politikoaren birdefinizio eta ahalduntze prozesurik ez baldin badugu garatzen.* Horrek ezinbestekoa egiten du Azurmendik aipatzen duen botere sareen erakundetzea; sare horiek egituratzeko, lankidetzazko gobernantza eredu geureganatzea premiazkoa da erakunde publiko, gizarte antolatu eta herritarren artean; komunitatea ehuntzen duten sareak sortuz eta garatuz; mundu berrira egokituko den komunitate berritua pentsatu eta sortuz. Eta ez lortu genezakeen egitura politiko berri batek gure komunitatea berrituko duela pentsatuz. Alderantziz, komunitate berritu eta berrindartuak gertura gaitzake gure herri eskubideen aitortza ziurta dezakeen egitura politikora.

Demokratizazio prozesu horrek berrindartu behar ditu nazio kulturala eta nazio politikoa, eta behetik gora eginga behar du izan. Prozesu horrek etengabeko esperimentaziora eramane behar gaitu, eta herri politiken garapena nahiz esparru publikoa sare askotarikoen edukiez gorpuztera. Espazio publikoa ez da erakunde publikoen baldintzapetik ateratzen den aktoreen eta edukien arteko interakzio sistema bat; nazio kulturala eta nazio politikoa egitura publikoaz gain espazio publiko orokorrago bat eraikitzen datozen interakzio sistema eta errealitatea ekoizteko sistemak dira. Komunitate edo sistema zabal horretara atxiki behar da herritarra, eta espazio publiko horren parte izan behar du. Herritarrak ere komunitate horretako kide arduradun bilakatu behar du, egun bizi ditugun desfekzioak gaindituz. Komunitatea birpentsatu behar dugula adierazten dugunean, ahalduntze prozesu berri batez ari gara; ahalduntze horren zerbitzura egon behar du herrigintzak eta politikagintzak; komunitate hori berrindartzeko esfortzu horretara bildu behar dira alderdi politikoen estrategiak. Azurmendik dioten moduan, nazioa kontzeptu prepolitikoa da, eta horrek egiten du aske, eta horrek ematen dio bidea eskubide politikoen aldarrirako. Baina komunitate berri bat dago birdefinitu beharra (ez, noski, hutsetik hasita; ez, noski, errealitatea kontuan hartu gabe fikzioak sortuz; ez, noski, mundua norantz doan kontuan hartu gabe), baina errealitate berri bat sortu behar da. Eta errealitate komunitarioaren birdefinizio eta ahalduntze hori bere baitan komunitateak egituratzeko gaitasuna duen indarraren bitartez hasi behar da egiten, etorkizunean lortuko genukeen egitura politikoak sor diezazkigukeen baldintzei itxaron gabe. Hau da une honetan euskal naziogintzak duen lehentasuna: herria, komunitatea aktibatu, berrindartu, munduaren bilakaera berrira egokitu.

Zalantzarik gabe, euskal nazioak berariazkoak dituen munduko gainontzeko nazio eta herrien eskubide politikoak aldarrikatu behar ditu, eta ahalegina egin behar du ahalik eta egitura politiko propio eta sendoena lortzeko. Ukaezina da horrek lukeen garrantzia euskal nazio kulturalaren eta nazio politikoaren babeserako. Baina abiapuntua egungo komunitatearen gizarte kapitatek eraiki daitekeena da; ahalduntze prozesu horrek ekarri beharko luke erakundetze politikorako indarra.

Euskal alderdi abertzaleek ezin dute komunitatetik deskonektatutako sistema autonomo bilakatu lau urtean, behin legitimazioa bilatuz eta sistema publikoa herri komunitate horrekiko independentziaz kudeatuz.

Mundu berri bat dugu, eta horrek gure nazio kulturala eta nazio politikoa birdefinitzera garamatza: euskal esparru publikoak mundutik edan behar du, munduan nagusi diren hizkuntzak etxeagoko bilakatu behar ditu eta mundu zabalak berekin duen aniztasuna bereganatu behar du, ikuspegi propioarekin baino garai berriek eskatzen dituzten erantzunak emanaz. Egun ditugun tresna guztiak modu koordinatuan erabili behar ditugu: sistema publikoa, gizarte antolatua eta herritarra. Hori da euskal nazioagintzak epe motz eta ertainean duen zereginik funtsezkoena. Eta horretarako ezinbestekoa da alderdi abertzaleen arteko oinarrizko adostasun bat herri estrategiaren inguruan. Bakoitza bere aldetik joanez gero, hauteskondeak bata ala besteak irabaziko ditu, egungo egituraren baitan herri politika batzuk ala besteak egingo dira, baina nazio kultural eta nazio politiko sendorik ez dugu lortuko; gero eta txikiagoak izango gara. Ezin gara Euskadiren independentzia lortzeko zain gelditu gure herria eta herrigintza sistema (ez sistema publikoa soilik) indartzeko. Besteak beste, gure herria eta gure herrigintza sistema ahulegiak direlako orain independentzia lortzeko (baita epe motzean helburu apalagoak lortzeko ere). Horrek esan nahi du berpizkunde berri bat egituratu behar duela Euskadik bere baitatik: berpizkundera ekonomian, berpizkundera euskal kulturaren, berpizkundera sistema sozialean... Horrek ekarriko du, ekartzen badu, berpizkunde politiko moduren bat (ez baitago oraindik garbi ezta ere zer-nolakoa beharko lukeen etorkizuneko egitura politiko horrek).

Bukatzeko, zerbait esan nahi nuke nazio politikoa erakundetzearen inguruan, aberria indartzeko herri estrategiak ezin baitu, ezta ere, zokoratua utzi egitura politiko berri baten ahalegina. Azken hilabeteetan Eusko Legebiltzarrean estatus politiko berri baten inguruko eztabaida garatu da. Eztabaida horren egokitasuna justifikatuta dago, autonomia estatutuaren esparrua agortuta ageri baita, ez betetze sistematiko baten eta garapen faltaren ondorioz. Estatuak ez du inoiz onartu Gernikako Autonomia Estatutuaren izaera itundua, eta horren garapena Espainiako konstituzio sistemarekiko menpekotasun egoera onartzera baldintzatu du beti. Hala ere, gure herriaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko eraikuntza politiko, ekonomiko eta sozialak eskatzen du erabakiak hartzeko gune propio bat instituzionalizatzeko ahalegina. Euskal autogobernua erreformatzeko beharra garrantzi handiko bi arrisku sakonen itzalpean dago: lehenik eta behin, Espainiako Estatuaren arkitektura konstituzionalak bizi duen krisi sistemikoak sortzen duen arriskua, autonomiak herrestan eramango dituen mugimendu erregresiboa eragiten ari dena (Espainiako Gobernuan dagoena dagoela); bigarrenik, globalizazio eredu horren ondorioek eta demokrazia liberalaren krisiak eragindako arriskua, espazio nazionalen eraikuntza eta garapena baldintzatzen ari dena. Euskal Herriaren etorkizuna ezin joka genezake karta bakar horretara. XXI. mendeak eskaintzen ditu euskal nazio kulturala eta nazio politikoa indartzeko kanpoko faktoreekiko dependentziazatik urruntzen diren aukerak.

Espainiako Estatu nazio guztiak ez daude egoera eta baldintza beretan, ez dituzte denek garapen aukera berak. Gai honetan indartsuenaren alde jokatzeko duen denborak, bere menderatze egoera sendotzeko joera duelako, eta ahulena gero eta ahulagoa delako. Gure herrialdean gero eta pertsona gehiagok mugatzen dute beren euskal naziotasuna erakusketa folkloriko batera, eta uko egiten diote ekintza eraldatzaileari, hain zuzen ere, beren ustez, desberdintasun nazional horiei buelta ematea ezinezkoa delako.

Espainiako nazioaren eta euskal nazioaren garapen baldintzen arteko desberdintasun egoera hori sendotzeak ahuldu egiten ditu euskal nazio nortasuna eta jarduteko edo eraldatzeko potentziala. Horregatik da garrantzitsua, euskal autogobernuaren etorkizunari buruzko eztabaidan, erabakitze eskubidearen instituzionalizazioa ere lehenasunezko helburu gisa jartzea; izan ere, helburu hori berehala lortzeko aukera errazago edo zailagoa izanda ere, funtsezkoa da paradigma argi bat sozializatzea euskal nortasun nazionala ekoizteko eta erreproduzitzeko, eta ekintza estrategiko bat orientatzea paradigma horren arabera.

Erabakitze eskubidea instituzionalizatzeko moduari buruzko eztabaida estrategiko berri bat ere behar dugu. Egungo Espainiako Estatuak ez du onartuko nazio espainiarraren subiranotasuna hausten duen estatutu berri bat eraikitzea. Gaur egun, itunean edo aldebakartasunean oinarritutako edozein estrategiak topo egingo du Espainiako Estatuaren pareta gogorrarekin. Benetako auzia da nola garatzen den euskal estrategia nazional bat (erakundeak eta gizartea integratuz, nazio kulturala eta nazio politikoa indartuz), herri eta nazio gisa gure esku dauden eskubideak berreskuratzeko: batzuek uste dute blokeotik irteteko eta aurrera egiteko modu bakarra dela erabakitze eskubidearen printzipioa eragin juridikorik gabeko plano batean kokatzea; konstituzioarekin lerratzen den aktore politiko batekin akordioa lortzea; eta konstituzio sistemarekin bateragarria den testuinguru batean ibilbideren bat bilatzea. Ni ez nator bat horrekin. Uste dut posizio horrek gaur egungo desberdintasun egoera sendotuko lukeela, Espainiako estatua atzera egiten ari den testuinguru batean. Nire ustez, beharrezkoa da estatutu berrian erabakitze eskubidearen aldarriari eustea, ez izango duen konstituzio ibilbideagatik, baizik eta Euskadik komunitate paradigma berri bat indartzeko prozesuan erreferentzia klabea delako, nazio eraikuntzaren benetako strategiari estaldura emango diona. Nire ustez, eztabaida da une honetan geure burua nola definitzen eta autoahalduntzen dugun herri estrategia baten ikuspegitik, nola definitzen dugun gure komunitatea (munduko aldaketen parametroen klabeetan), gero besteekiko harremana zehazteko. Espainiako (Frantziako egoera beste bat da) sistema politikoarekiko harremana berdintasun klabeetan egituratu nahi bada, euskal aberriak orain erakusten ez dituen indargune batzuk sortu beharko ditu.

Euskadik eraikuntza nazionalerako estrategia partekatu bat behar du. Herri gisa ditugun eskubideetan sinesten dugunok partekatzen duguna eta erakundeak nahiz gizartea bilduko dituen. Eta behar du, gure erakunde egituraren suntsiketa gertatzen ari delako, gure nazio nortasuna ahultzen ari delako, iritzi publikoaren berezko egitura husten ari delako, eta uretan gatzaren gisara urtzeko arriskua benetakoa delako, ez belaunaldi askotan. Erabakitze eskubideak, gaur egun, herri estrategia bat izan behar du, nazio kulturala eta nazio politikoa berrindartzeko estrategia partekatu bat; gure indargunea berreraikitze paradigma, gure barne berreraikuntzari ekiteko ibilbide orria.

## ***Bibliografia***

- Azurmendi, J. (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.  
 Bauman, Z. (2016): *Ceguera moral*, Bartzelona, Paidós.



- (2017): *La sociedad sitiada*, Madril, Fondo de Cultura Económica.
- Beck, U. (2018): *¿Qué es la globalización?*, Bartzelona, Paidós.
- Castells, M. (2018): *Ruptura. La crisis de la democracia liberal*, Madril, Alianza.
- De Venanzi, A. (2002): *Globalización y corporación*, Bartzelona, Anthropos.
- Giddens, A. (2007): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Mexiko Hiria, Taurus.
- Guilluy, C. (2019): *No Society. El fin de la clase media occidental*, Bartzelona, Taurus.
- Levitsky, S.; Ziblatt, D. (2018): *Cómo mueren las democracias*, Bartzelona, Ariel.
- Lipovetsky, G. (2017): *La felicidad paradójica*, Bartzelona, Anagrama.
- Mair, P. (2017): *Gobernando el vacío. La banalización de la democracia occidental*, Madril, Alianza.
- Mounk, Y. (2018): *El pueblo contra la democracia*, Bartzelona, Paidós.
- Peschard, J. (2016): *La cultura política democrática*, Mexiko Hiria, INE.
- Piketty, T. (2019): *Capital e ideología*, Bartzelona, Deusto.
- Putnam, R. (2002): *Solo en la bolera*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
- Simone, R. (2016): *El hada democrática*, Bartzelona, Taurus.
- Smith, A. D. (2004): *Nacionalismo*, Madril, Alianza.

## JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
**www.jakin.eus**